...eta

# kitto!

barruan
**URTEKARIA 2012 hilez hile**

830 zkia.
2012-XII-28







RPS 04/02

# IRAZABAL

clínica dental

Urte Berri On!!!

- Irribarreetan adituak

ESPEZIALITATE GUZTIAK

Aseguruekin
IMQ, ADESLAS, SANTA LUCIA,
FRATERNIDAD...
egiten dugu lan
KONTSULTATU!

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

## Kalitatezko Gastronomia

Xagit Andonegi eta Javier Ugarteren eskutik

**Gabon Jatorduak**
- Jatorduetarako menu berezi pertsonalizartuak
- Areto pribatuak ospakizun familiarretarako

**Gure Jaunartzeak**
- Bertoko produktuekin landutako menuak
- Umeentzako jaia, animazio, musika eta opariekin!!

**Ezteiak itsasoan**
- Ekitaldi pertsonalizatuak, detaile guztiak zainduta
- Ongietorri cocktail-a eta Zeremonia itsasoari begira
- Esklusibitatea eta mugarik gabeko egonaldia, musika eta barra librearekin

**Gainera, egunero...**
- Kalitatezko eguneko menua
- Menu exekutibo dotorea

aisia HOTELES



www.aisiahoteles.com



Aisia Deba
Markiegi Kalea, 6 • Deba
943 60 80 52
deba@aisiahoteles.com



Aisia Lekeitio
Santa Elena Etorbidea, s/n • Lekeitio
94 684 26 55
lekeitio@aisiahoteles.com

# ASTEAN ESANAK

"Gauza batek funtzionatuko baldin badu, behetik gora egin behar da. Naturan ere, ez dut ezagutzen ez landarerik ez beste ezer goitik behera hasten denik. Goitik behera euria bakarrik egiten du"
(IMANOL LAZKANO, BERTSOLARIA)

"Asko falta zaigu Norvegian, Frantzian edo Danimarkan emakumeen kirolari ematen zaion garrantzia mailara iristeko. Herri horietan gizonezkoarekin parekatuta dago. Hemen heziketa hori behar dugu kulturalki"
(JORGE DUEÑAS, PRESTATZAILEA)

"Kultura eta entretenimendua lotzea perbertsoa da, baita telebistarekiko demaseko lotura ere. Sormena eta espiritu kritikoa zaindu behar dira, kultura baita gizarte batek duen altxorrik handiena. Politikariek balekite..."
(GORKA KNORR, KANTARIA)

"Japoniarrak derrigortuta daude gerri buelta fina izatera. Gerria neurtzen diete urtero lantokian. Gizentzen doazenek hiru hilabete dituzte argaltzeko. Lortzen ez badute, dieta egitera derrigortzen dituzte"
(IDOIA ETXEBERRIA, KAZETARIA)

## *Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera*

JABONADURIA EGIN.- Lixiba egin, erropak garbitu. *"Labadorarik ez eguanian, jabonaduria egittia zan etxeko biharrik nekosuena".*
JABOINDU / JABONDU.- Jaboiaz garbitu. *"Jabondu baten premiñia badaka horrek".*

# eskutitzak

### OTARRAREN IRABAZLEA EZ DA AGERTU ORAINDIK

Abenduaren 19an zozketatu zen ...eta kitto! Euskara Elkartearen Gabonetako otarra eta oraindik ez da 1.626 zenbakiaren jabea, zozketa horretako irabazlea, agertu. Jose Luis Gorostegik saldutako boletoaren jabea ez bada agertzen, ordezkoa ere badago: Isasi okindegian saldutako 175 zenbakiaren jabea. Lehenengo zenbakiaren jabeak urtarrilaren 4ra arte du ...eta kitto!-ra zuzenean etorri (Urkizu, 11, solairuartea) edo deitzeko epea (943-206776 edo 943-200918). Epe hori amaituta, ordezkoak izango du aukera otarra jasotzeko.

***...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA***

*ERREDAKZIOAREN OHARRA:*
*__Datorren astean ez da alerik izango__ (besteontzako Gabonetako oporrak direnak guk urte berriaren lehen astean hartzen baitugu), eta eskuan duzun Urtekariaren ondorengo __hurrengo zenbakia urtarrilaren 11n__ jaso ahal izango duzu zure buzoian. Ondo izan eta ordura arte.*

***ERREDAKZIOA***


**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
**Astekariaren E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com / publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Koldo Mitxelena.
**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** *8.050 ale.* **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).


**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!


**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679
*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

kutxa gizarte ekintza

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria*



## Abontzatomasak eguzkipean

**Abontzako Itturrixa elkarteak antolatuta**, aurreko domekan ospatu zituzten Abontzatomasak. Eguraldi zoragarria lagun zutela, giro ederrean eman zuten goiza. Bazkaltzeko ordua ailegatu bitartean umeendako jolasak izan ziren protagonista, txosnan banatu zituzten salda beroarekin eta txistorra pintxoekin batera. Aurten jaian batutako dirua Elikagaien Bankuentzat janaria erosteko erabiliko dute antolatzaileek.

## Gabon kontzertuak

**Aurreko asteko eguaztenean** Juan Bautista Gisasola Musika Eskolakoek Gabon kontzertua eskaini zuten eta domekan, berriz, beste horrenbeste egin zuten Usartza Txistulari Bandakoek eta Sostoa abesbatzakoek. Azken horiek, gainera, hurrengo egunean Zaldibarren saioa errepikatu zuten.



## Gabonetako jarduerak Ibarkurutze inguruan

**Estaziño eta inguruko kaleetako** dendari, tabernari eta bizilagunek osatzen duten Zona 10 elkartekoen eskutik, aurreko barixakuan ailegatu zen Olentzero Ibarkurutzera. Umeek eurendako prestatutako eskulan tailerretan eta diskotekan ederto pasatu zuten eta, gainera, askok Olentzeroren eskutik zuzenean oparia jasotzeko aukera izan zuten. Gaur 500 euroko txeke baten zozketa egingo dute eta urtarrilaren 5erako, berriz, azoka berezia eta jarduera osagarri mordoa antolatu dituzte goizeko 10.00etatik 14.00etara.



## Postarien greba amaitu da



**Correoseko zuzendaritzak eta sindikatuetako** ordezkariek zerbitzua bere onera bueltatzeko adostasuna lortu dute aurreko astearen amaieran eta, horri esker, hainbat postarik 20 egunez aurrera eraman duten greba deialdia bertan behera laga dute. Orain bulegoan pilatzen joan diren 300.000 kartak banatzen hasi dira eta, etxeetan ahalik eta azkarren jasotzeko, Correosek bere esku dauzkan baliabide guztiak erabiliko dituela aurreratu du.

PSIKOLOGIA – SEXOLOGIA
Ana Oiarzun Zabaleta

AHOLKULARITZA
eta BITARTEKARITZA

BIKOTEA: gatazkak,
dibortzioa, ...
FAMILIA:
gurasoak/seme-alabak, ...

Blas Etxebarria 2 - behea ana.oiarzun@gmail.com
Telf. 943 20 08 20 / Mobila. 635 74 62 50



## Eibart azoka Bizikleta Plazan



**Eibart Eibarko Artisauen elkarteak zortzigarrenez** antolatu du azoka Eibarko Bizikleta Plazan. Errege Egunaren bezperara arte martxan egongo da, egunero 11.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 21.00etara (urtarrilaren 1ean itxita). 14 artisauk dihardute parte hartzen, eskaintza zabalarekin: bitxiak (zilarra, ehuna, beira, gantxillua…), egurrezko ontziak, margotutako ehun eta gantxillo osagarriak, telarrean egindakoak, larrua, eskuz margotutako umeendako erropak, errestaurazio eta birziklapenetik sortutakoak, krema eta jaboiak, errementaria, luthierra… Urtarrilaren 3an arratsaldez eskulan tailerra egongo da martxan.

## Presoen aldeko argazkiak

**Atzo zabaldu zuten Topalekuan** urtarrilaren 5era arte ikusgai egongo den argazki erakusketa, Jose Luis Irigoienen argazkiekin. Erretratuak salgai daude eta batzen duten dirua presoen alde erabiliko dute Eibarko Herrira-koek. Bestalde, bihar Azken Ostirala berezia izango da: 19.30etan Untzagatik irtengo den giza-katearen amaieran talde argazkia egingo da, Bilbon urtarrilaren 12an egingo den manifestaziorako deialdia egiteko. 31n, 19.00etan, manifestazioa egingo da eta Gabon Zahar egunean, 01.00ean presoen aldeko brindisa egingo da Eibarko Bizikleta Plazan. Eta Urte Berri egunean, 10.30etan, presoei bidaltzeko talde argazkia aterako dute Urko puntan.






## Armeriaren 100 urteak ikusgai

**Urtarrilaren 13ra arte egongo da** ikusgai Portalean "Armeria Eskola atzo, gaur eta bihar" izenburuko erakusketa, martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara. Eskolaren sorreraren mendeurrena ospatzeko urte osoan garatutako egitarauan azken jarduera da egunotan ikusgai dagoen erakusketa.



## Gabonetako parkea Astelenan

**Eguaztenaz geroztik zabalik dago Guai** Gabonetako parkea Astelena frontoian. Gaur, bihar eta urtarrilaren 2, 3 eta 4an egongo da martxan, 11.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.30etara. Sarrerak Eibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGIk) banatutako bonoen bitartez edo Astelenako leihatilan erosita (euro 2) eskuratu daitezke. Aurten, gainera, apirila bitartean zapatuero zabalduko dute Guai-a Astelenan. EMGIren ekimena dira baita Ugan gimnasioko Txiki Parka eta Urkizun eta anbulategi parean ipinitako barrakak ere.



# ...eta kitto!
## Euskara Elkartearen
# KATALOGOA

KATALOGOAK DITUEN IRABAZIAK EUSKERA SUSTATZEN ERABILIKO DITUGU

## azken eguna: URTARRILAK 2



**ASTELEHENETIK BARIXAKURA**

**10.00-13.00/16.30-19.30**

...eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11)

...eta kitto! Euskara Elkartea

KARRIKIRI

ALFA

# Alfakoek lanuzteak deitu dituzte

**Zapatuan manifestazioa egin zen** "Alfan despidorik ez!" goiburuari jarraituta, orain arte enpresako zuzendaritzak taldeko 3 lantegirako (Alfa Hogar, Alfalan eta Mecanicas Mallabirako) aurkeztutako 87 kaleratze proposamenen aurrean protesta egiteko. Beharginen ordezkariek zuzendaritzatik 150 bat kaleratze proposamen aurkeztuko dituztela aurreikusten dute. Horren aurrean mobilizazioekin jarraituko dute: urtarrilaren 2an eta 4an ordu biko lanuzteak deitu dituzte eta urtarrilaren 7, 9 eta 11n greba egiteko asmoa azaldu dute.

# Urte Berriari ongietorria Urkon

**Urteroko martxari jarraituta**, ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta Klub Deportiboak, udalaren laguntzarekin, Urko mendira urte berriko igoera antolatu dute 2013ko urtarrilaren 1erako: taldean igo nahi duenarentzat, Depor paretik irteera 09.00etan izango da. Eta 10.00etatik aurrera Ixuan salda beroa muxutruk hartzeko aukera izango da, bertako jatetxearen laguntzari esker.




# Amañako pasabidea zabalik



**Aurreko asteko barixakuan zabaldu zuten** Amañatik Otaolara joateko pasabide eraiki berria. Amañakoei Ipurua eta Otaola Hiribidera joatea errazteko asmoz jaso duten pasabideak batezbeste %5eko malda dauka, ez labaintzeko zorua ipini diote eta lurrean bertan sartutako 11 luminariarekin argiztatuta dago. Eraikitzeko beharrek 489.000 euroko aurrekontua izan dute eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako lana izan da.

Zure
HORTZ-KLINIKA



Monica Martín Fonseca
DOKTOREA
644 kolegiatu zkia.

protesiak
inplanteak
ortodontzia
periodontzia
endodontzia
PADI
Hortzak zuritzeko tratamendua

clinicacalbeton@euskaltel.net

calbetón
hagin klinika

F. Calbeton, 6 - 1. A    Tel. / Faxa: 943 03 33 03

## Cornagori omenaldixa

**Euskal Herriko Gazte Orkestia** urteroko neguko topaketietan dago Unibersidade Laboralian hurrengo kontzertuak prestatzen. Oinguan, gaiñera, zentroko Egoitzetako arduraduna zan Txema Cornago omenduko dabe domekan, arratsaldeko 17.00etan. Musiko gazte hórrek urtarrillaren lehelengo asteburura arte egongo dira zentruan.

## Olentzero bisitan

**Urteroko zitari kale egin barik, Olentzero astelehenean** gure artean izan genuen, udaletxean umeei opariak banatzen eta jarraian kalejiran Pantxika astoak, Kaleetan Kantuz abesbatzak, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako soinu ikasleek eta trikitilariek lagunduta. Errege Kabalgata, bestalde, hilaren 5ean izango da. Aurretik, 17.00etan, Ipurua Dantza Garaikidea, Ipurua Gimnasia Erritmika eta Eibarko Balleta taldeen dantza erakustaldia egingo da kiroldegian eta kabalgata 19.00etan irtengo da Untzagatik, Cielito Musika Bandak lagunduta.





## Ate irekiak haurtzaindegian

**Urtarrilaren 5ean ate irekien jardunaldia** egingo dute Karmen kaleko 3an dagoen Laztantxo haurtzaindegian 11.30etatik 14.30etara. Haurtzaindegia barrutik ezagutu nahi duen jende guztiarentzat zabalik egongo den ekitaldian, besteak beste, Meltxor erregea bisitan izango da eta txokolate-jana eskainiko dute.



## Gerrako umeei aitorpena

**Aurreko astean udaletxean omenaldia egin zieten** gerra sasoian atzerrira ebakuatutako umeei. Urtarrilaren 20ra arte, bestalde, Eibarko "gerrako umeen" inguruko argazki erakusketa berezia martxan izango da. Untzagan eta beste toki batzuetan ipini dituzten 17 argazki erraldoi horiekin, modu sinbolikoan bada ere, historian ezagutu den umeen ebakuazio handiena izan zena ezagutarazi eta gogoratu nahi izan dute.


Funeuskadi Eibar
SERVICIOS FUNERARIOS
Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27
Bulegoa:
24 orduko zerbitzu iraunkorra
943 82 15 39 · www.funeuskadi.com
Grupo Funeuskadi
· Eibar · Donostia · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao ·
· Portugalete · Santurtzi · Galdakao · Sodupe ·
· Espinosa de los Monteros ·

HP 650 Portatila
Intel Celeron Dual Core, 4 Gb. Ram, 500 Gb. disko gogorra. HD Graphics 15.6'', DVD+/-RW, Webcam, Windows7 Home premium 64.
338€ bakarrik
BEZ %21 sartu gabe
eitek
Urtzaile, 1 (Aurrera edifizioa, C lokala). Eibar
Tel. 943203090. Fax 943204249
www.eitek.net - eitek@eitek.net

VITORIA GASTEIZ!

# Gabonetan Gasteizera etorri eta plan onenez gozatu

## Izotz-pista eta izotz-txirrista - Floridako Jaiotza ikusgarria
## Musika kalean eta hiriko denda onenak erosketak egiteko







### Zer da Gasteiz ON?

Gasteizko hiriguneko denden elkarte bat da. Denetariko dendak –arropa, jostailuak...–, tabernak, jatetxeak, guzia hiriaren erdialdean. Elkartearen barruan ze negozio dauden jakiteko, webgunean kontsultatu: www.gasteizon.com

### Gasteiz ONen erosteak oparia dakar

Gasteiz ONeko dendetan 20 euro baino gehiagoko erosketak eginda, eta Informazio Guneren baten tiketak aurkeztuta, opari hautako bat jasoko duzu:

**INFORMAZIO GUNEAK**

NON DAUDE INFORMAZIO GUNEAK?

ORDUTEGIA

12:00 a 14:00 - 18:00 a 21:00

**IZOTZ-PISTARAKO SARRERAK**

**SARI UGARIREN ZOZKETA, ARABAKO ERRIOXAKO ARDOAREN IBILBIDEAREN ESKUTIK**

**PAKETERIA IRAUNKORRA**

**KONTSIGNA ZERBITZUA**

**DOAN!**

3 EUROKO BONUA PARKINGEAN, KUPOI HAU AURKEZTUTA

Kupoi hau eta zure aparkamendu-tiketa Informazio Guneren baten aurkeztuta, doan lortuko duzu hiru euroko bonu bat Amarikako, Katedraleko, Juan Aialako eta Europako parking publikoetan erabiltzeko.

gasteiz on

ESTHER BILBATUA (Eibarko Dendarien Elkartea)

# “Eibarren denda asko eta kalitatezkoak dauzkagu”

*Eibarko merkataritza indartu eta dinamizatzeko asmoari jarraituta, 1987. urtean jaio zen Eibarko Dendarien Elkartea. Gure herrian beharrean diharduten profesional eta merkatariek osatutako elkarte boluntarioa da eta gaur egun bertako presidente karguan dagoen Esther Bilbatuarekin berbetan egon gara, sektorearen egoeraren berri izateko asmoz.*



***- Gabonetan bete-betean sartuta gauden honetan, nola bizitzen diharduzue sasoi hau dendariek?***

Krisiak berarekin ekarritako trabei ahal dugun moduan aurre egiteko ahaleginetan, jendeak ez dihardu kontsumitzen eta igerri egiten diogu. 2007. urtetik hona egoerak okerrera egin du. Alde horretatik, eibartarrak ahal duten neurrian Eibarko dendetan erostera animatu nahi ditugu, krisiak luze joten diharduelako eta, bestela, nekez egin dezakegulako aurrera. Eibarren kalitatezko denda asko daukagu. Oro har, Gabonak izateko erosketa giro gutxi ikusten da. Bestalde, herriko denda batzuk itxi egin dira, sarritan jubilazioak tartean direla, baina egia da oraindik ere denda berriak zabaltzen jarraitzen dutela, hutsik geratzen doazen lokaletan mugimendua ikusten da.

***- Gabonak direla eta, kanpaina bereziak abiatzen dituzue beti. Aurten, gainera, Estaziño ingurukoek egitarau zabala prestatu dute lehenengoz…***

Bai, baina gauzak argitze aldera, elkarte bakoitzaren ingurukoak ondo zehaztea komeni da. Nik ordezkatzen dudan elkartea Eibarko Dendarien Elkartea da, herriko 150 dendatik gora bazkide duen elkartea, hain zuzen. Guk antolatzen ditugun gauza guztiak bazkide diren denda guztientzat berdin-berdin antolatzen dira. Eibar Merkataritza Gune Irekia, berriz, elkarteen elkarte bat da, Eibarko Dendarien Elkarteak, udalak, Debegesak, ostalariek eta El Corte Inglések osatutakoa. Eta Zona 10 behealdeko bizilagunen ekimenez eratu den bizilagunen elkartea da. Hau da, dendariez gain tabernariak eta bizilagunak ere badaude elkartean.

> “Internetek dendak etxeetaraino eramateko aukera eman digu”

***- Nolakoak dira Eibarko dendetako bezeroak?***

Denetarik daukagu. Gainera, laster beherapen eta merkealdiak hasiko dira eta horrelakoetan, ohiko bezeroez gain, eskaintzen diren prezioak erakarrita bestela normalean etortzen ez zaizkigun bezero asko ibiltzen dira.

***- Eta beherapenen ostean, are merkeago ipintzen dituzue gauzak Factoring edo beherapenen azoka berezi horretan, ezta?***

Bai, hor normalean beste sasoi batzuetako gauzak ipintzen ditugu salgai, oso oso merke. Jendeak gauzak erosteko aprobetxatzen du eta guri ere ondo datorkigu, bestela biltegietan ezin salduta geratzen zaizkigunetako asko saltzeko aukera izaten dugulako. Izan ere, guk dendan eskaintzen ditugun jantziak-eta urtebete aurretik erosi ohi ditugu, hau da, orain hurrengo neguan salgai ipiniko duguna erosten dihardugu eta, saltzea lortzen ez dugun guztia guk ordaindu-ta daukagu, bere zerga guztiekin, beraz ez baditugu biltegitik ateratzen guretzat galera dira horiek guztiak.

***- Zuetariko batzuk sare sozialak (Facebook) eta internet erabiltzen hasi zarete dendetako eskaintza ezagutarazteko. Etorkizuna bide horretatik etorriko da?***

Oraindik oso mundu ezezaguna da guretzat, baina egia da sare sozialak gero eta gehiago erabiltzen direla eta guri, moduren batean azaltzeko, dendak jendearen etxeraino eramateko bidea zabaltzen digute. Gazteak ez dira ibiltzen denda batetik bestera, denbora erosketak egiteari eskaintzen. Horregatik, dendetan daukaguna etxean internet bidez ikusteko aukera eskaintzean, eskaparateak etxe barruraino eramatea bezalakoa da. Kasu batzuetan etxean bertan internet bidez ordaindu eta erositakoa etxeraino eramateko aukera eskaintzen zaie, baina gehienetan gauzak interneten begiratu eta dendara zuzenean jotzen dute, ikusitakoaren inguruan galdezka. Internet bidezko salmentak interes handia sortu du dendarien artean, baina oso garestia da eta, Eusko Jaurlaritzak-eta emandako diru-laguntza barik, martxan ipintzeko oso zaila.



JOSE LUIS NOVOA (Armeria Eskola)

# “Produktu propioa berreskuratu behar dugu”

*Armeria Eskolako zuzendariak ez du nekatuta amaitu Eskolako mendeurrenaren urtea, ekitaldiz beteta izan badute ere. Onartzen du exigentzia maila bati egin behar izan diotela aurre -taldelanean sinesten baitu-; baina, pilak kargatuta, borrokan jarraitzeko asmoa du, “proiektua badugulako eta gogo faltarik ez dagoelako”. Azken mendeko eibartarren espirituarekin egiten du bat Novoak gertuen ditugun erronkei aurre egiteko.*

***- Zelan laburbilduko zenuke pertsonalki Armeria Eskolaren mendeurrena?***

Esker onez, bai nire izenean eta baita instituzio moduan ere. Gizarteak gurekiko esker ona erakutsi digu eta baita ilusioa transmititu ere. Jaso ditugun errekonozimendu guztiak Eibarrekin, erakundeekin eta zentroko jendearekin partekatu nahi izan ditugu. Aldi berean, erakutsi digu proiektua ez dela amaitu eta abiada berri bat hartzeko unea dela. Lehendik genuenarekin -hau da, ondo egindako lanarekiko pasioa, ekimenerako ahalmena eta bikaintasunaren bila jardutea- jarraitu behar dugula ikusteaz gain, errekonozimendu horiek etorkizunean bide beretik jo behar dugula diote, zerbitzu eskuzabalarekin konprometituta.

***- Jendearen erantzunarekin ezusterik izan duzue?***

Espektatiba guztiak gainditu dira. Ekitaldiak jendetsuak izan dira ia denak: hitzaldiak izan, ikasle-ohiekin egindako bilerak eta orokorrean baita hiritarren parte-hartzea. Zabaldu berri dugun erakusketa antolatzeko ere askoren laguntza jaso dugu eta ikusmina piztu du, jendearen deiek erakusten dutenez. Ez hori bakarrik: Eskolako ikasleak izan diren guztiek euren tokia izango dute erakusketan.

***- Zein ekitaldi nabarmenduko zenuke guztien artean? Zein sari izan da berezia zuentzat?***

Izan dira hiru hitzaldi berezi eta espezifikoak, baita elkarren arteko topaketa-jardunaldi guztiz arrakastatsua ere. Amaiera ekitaldia atzeratu egin dugu eta areto-museoaren proiektua ere hor dago. Sariei dagokienez, Lan Onari emandakoa nabarmenduko nuke, duen esanahiarengatik eta garrantzitsuenetakoen artean dagoelako autonomia mailan. Baita Empresa Vasca y Sociedad fundazioak edo Confebask-ek emandakoak ere.

***- Zelan egin behar diozue aurre zuen zain dituzuen beste ehun urteei?***

Gogo eta ilusio bereziarekin, garrantzia handia baitu Eskolaren balioa errekonozitzeak bai Eibarrendako, bai Debabarrenerako eta baita Euskal Herrirako. Gure funtzioa ezin dugu ahaztu: gizartearen errealitatea erraztea eta transformatzea dagokigu, ez gehiago ez gutxiago.

***- Bizi dugun krisi egoerak Eskolari egokitzapena eskatzen dio?***

Krisiak gizarteari eta ekonomiari orokorrean hartuta eskatzen dio egokitzapen hori. Gu industrialak gara (Gure Gero-Gura Gara) eta badakigu beste gauza batzuk egin beharko ditugula, beste modu batean. Benetako krisiek hamarkada osoa irauten dute eta bertatik ez gara irtengo sartu ginen moduan. Enpresa askori txarto doakien modura, badira beste batzuk halako egoerei etekina ateratzen dakitenak. Gure irteera nazioarte mailan ikusi behar dugu, merkatu globalean funtzionatzen dihardugulako. Esparru horretan jokatzeko pertsonak prestatu beharra daukagu. Hizkuntza gaitasunak hobetu behar ditugu, askotan ez euskerak, ez gaztelaniak ez baitigute biderik zabalduko merkatu askotan: ingelesa, txinera, turkiera, portugesa... ikasi beharko dugu. Herrialde traktore horietan aurkituko ditugu-eta gure bezero potentzialak. Eskolak hor egon beharra du.

***- Epe motzera, zernolako erronkei egin behar diezue aurre?***

Hausnarketa estrategikoari eutsi behar diogu berehala. Gorantz doazen sektoreei heldu behar diegu: badira batzuk heldutasunera iritsi direnak, baina beharrezkoa dugu gure burua berrasmatzea, bai eskualde moduan, bai ekonomiatik begiratuta. Irteera hori teknologia berrietan, osasunean eta, batez ere, energetikoa arloan ikusten dut nik. Gutxi gorabehera, aurreko mendearen 20ko hamarkadan Eibarren bertan egin zena, armak egiteari laga eta industria mekanikora jauzia eginez. Horretarako, oinarrizkoa da produktu propioa berreskuratzea. Gu izan behar gara fabrika, erabakiak guk hartuta, azpikontratatuak izan gabe. Esandakoak denok (enpresak, Unibertsitateak, Lanbide Hezkuntzak) zentzu berean arraunean egitea eskatzen du, apostua egitea herri modura.

> ”Oso eskertuta gaude gizartearen erantzunaz”

***- Gure ahalmenen gainetik bizi izan garela esaten dutenekin ados zaude?***

Hori ez da horrela: inor ez da bizi dagokionaren gainetik krisia etorri arte. Beste gauza bat da kontu handiagoz edo txikiagoz jokatzea, zikloen jabe izan behar gara-eta. Krisia finantzieroa izan da eta horrek konfiantza krisia ere ekarri du berarekin. Baina krisi guztiek eskaintzen dituzte aukerak. Txarrena epe laburrera jokatzen dugula da.

Aurreko urtian baiño 102 biztanle gehixagorekin, **27.625 biztanlerekin** ekin zetsan urtiari gure herrixak eta hórretako askok **Urkora** igota hasi eben urtia. Demaseko giruarekin hasi zeben urtia **Gureak** lantegikuak urteroko bazkarixan eta **Hiru Erregieri** harrera berua eskindu zetsen. Hotzago hasi ziran diru-kontuak: udalak urte osorako 30 millioi euroko **presupuestua** onartu eban, azken urtiotako bajuena. Hillaren 17xan Azittaiñen **San Anton** gogoratu eben eta **Usartza Txistu** Taldiak Bilboko Euskaldunan jo eban. Urte hasieran ipiñi zittuen biohondakiñak batzeko lehelengo **kontenedore marroiak**. **Roberto López Etxeberria** diseñadoriari grabadore bolia emon zetsen eta alkate izandako **Javier Eguren** hil zan. **Lagun Taldea**ren ikuskizuna eta **danborrada**ko kontzertua be euki genduazen. Eta urte osuan sorreriaren mendeurrena ospatu daben **Armerixa Eskoliak** hillaren 24an bete zittuan 100 urtiak.



**JAVIER NOVO**

**“240 urtetakoa izan daiteke bizi-itxaropena mende erdian”**

**DATUA**
1.900 langabetu zeuden Eibarren eta langabezi tasa %11’1ekoa zen urte hasieran




Urte berriari ongi etorria Ixuan eta Urkon




Lagun Taldearen ikuskizuna



Sahararen aldeko kanpaina

EMAKUME ETA GIZON
MODA
Valenciaga
KONFEKZIOAK
☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

San Andres Gozotegia
tartak
enkarguak
etxera
Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73


Santaeskearen berreskurapena baserri giroan

Kezka dantza taldiaren **koko-dantzak** Italiako **Aratostiak** gurera gerturatu zittuen. Neguko jaixekin jarraittuta, **San Blas** egunian opillak bedeinkatu genduazen eta **Santa Ageda** batzen jardun eben askok. **Ezbeharrik** be izan zan: bariantian, auto istripuan 45 urteko eibartarra hil zan eta Teknikerren sua piztu zan. Eta 40 urtian martxan egondako **Eibarko Patronatua** errehabilitaziño zentruak atiak betiko itxiko zittuala jakin genduan. **Alfa**kuak, lantegixaren egoeriaren barri euki eta mobilizaziñuak hasi zittuen. Kulturan, 35. Eibarko **Antzerki Jardunaldixak** hasi ziran eta Portalean, **"Hiperasia"** izenburuko erakusketan, Debabarrena eta Debagoienako 21 artistaren lanak ikusgai ipiñi zittuen. **Fausto Morgado** margolarixak, barriz, betiko laga ginttuan. Eta hillia agurtu aurretik, presuen eskubidien alde jarduteko alkartia, **Eibarko Herrira** presentau eben.


Giza irudien jardunaldia


Aratosteetan koko-jantzien ordua



**AXEL RIAÑO**

**"Igoeraren gola kantatzea demasa izango litzateke"**

**DATUA**

**28.000 euro gastatzen dute herriko 18 lorategietako lorak berriztatzen: 16.000 lora guztira**

# JESUS Mª LARRAÑAGA RETOLAZA

*(2012-I-1)*

**LEHENENGO URTEURRENEAN**

*"Zeure bizialdian beti gure ondoan eduki zintugun, orain betiko gure bihotzetan gordeta"*



Hillaren 1ian sasoi betian egin zittuan 100 urte **Angelita Ibarra** Aldazabalek. **Martxuaren 8xa**ren harira, barriz, programaziño zabala preparau eben Andretxeak batzen dittuan herriko andrazkuen alkartiak. Bilbon, **Enrique Zuazua** eibartarra zuzendari zientifiko dakan Basque Center for Applied Mathematics (BCAM) zabaldu eben. Portalean presentau eben, bestalde, sortu barrixa zan **Euskadiko Islamiar Kontseillua**. Egun batzuk desagertuta emon zittuan Agiñagako 59 urteko gizonezkuaren gorpua erreskatau eben Ixua inguruan suhiltzailliak; **automobilarekin amilduta** hil zan. Urkizuko parkian bigarrenez egin zan **Landare Ferixia**. **Miguel Sagastume** "Mago de Urki" soiñujoliari omenaldixa egin zetsen Bergaran. Eta urtian egin diran **greba orokorretako lehelengua** martxuaren 29xan egin zan. Deialdixak jarraipen zabala euki eban.



Asola-Berri bolatokiaren mende erdia



**ANGELITA IBARRA**
**"100 urteak konturatu barik iritsi zaizkit, di-da batean"**

**DATUA**
**11.100 etxebizitza printzipal zenbatu zituzten Eibarren eta 2.600 bigarren etxe modura**


Andretxea emakumearen alde


UEUren programazio osotua

BOLINTXO
OKINTEGIA
GOZOTEGIA
Eguneroko ogia

☎ 943 20 40 66 (Errebal, 9) ☎ 943 20 36 06 (Legarre Gain)

publi resa
- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...
PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK
Armagin 3 - behea
☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net



Armeria Eskolak bere plaza izango du hemendik aurrera



"Itxaropena" ikuskizunaren irudia



Errepublikari ohiko omenaldia

Hillaren 14an **II. Errepublikia** Eibarren aldarrikatu zala 81 urte bete ziran. DYAk **Prebenziñuaren Astia** antolatu eban. **Liburuaren Eguna** gogoratu eban Juan San Martin liburutegixak hillaren 23an; piskat aurretik hasi ziran eskintzen e-readerren maillegu zerbitzua. Eta Ego Ibarrak lehelengo liburu elektronikua emon eban argitara: **"Ingenios hidráulicos en Eibar"**. Hillaren 25ian bete zan gure herrixa suntsitu eben **bonbardaketen 75. urteurrena**. Hori gogoratzeko jarduera diferentiak egin dira urtian zihar, tartian Indalecio Prietori buruzko erakusketia eta EAJ alderdixak Antonio Sarasketa, Mercedes Kareaga eta Indalezio Ojangureni omenaldixa egin zetsen. Legia betetziarren apirillaz geroztik udaletxeko balkoian **banderak** dagoz. **Indianokua** gaztelekuak urtebete egiñ eban. **Barakaldo eta Wenzeslao Orbeako igogailluak** martxan ipiñi zittuen.



MARIVI MURILLO

"Behin gitarra hartuta berehala hasten naiz kantuan"

**DATUA**

7.500 kilo bonba bota zituzten italianoek 1937ko apirilaren 25eko arratsaldean Eibarren

Larragest
INMOBILIARIA / ASEGURUAK
F. Calbetón, 22-24
943 200 012
690 610 715


Casino Artista Eibarrés-ek ehun urte bete ditu aurten

Manifestaziñuarekin hasi zan hillia, **Bihargiñen Naziñoarteko Egunian**. **Pertsona Nagusixen** XIX. **Hamabostaldixa** maiatzian ospatu zan, **Santa Kurutz**eko, **Galiziako Etxe**ko eta **Abontza**ko jaixak moduan. **Eibarko Casinua** sortu zala 100 urte bete ziran martxuaren 30ian, baiña mendeurrena ospatzeko lehelengo ekitaldixa maiatzian egiñ eben. Klub Deportibuaren eskutik **Argazkilaritza Maiatzean** martxa betian izan zan. **Eskolarteko Antzerki Erakusketia** be hille honetan eskindu eben. Eta **Maixa**k egindako inkestaren arabera, eibartarron kezka nagusixak Errebal, trafikua eta zikinkerixia zirala jakin genduan. **Eibarko Dendarien Elkartea**k 25 urte bete zittuan, **Zentro Medikua**k moduan. **Santa Rita** egunian Lekeittioko monjeri bisitan juan jakozen urtero holan egitten daben eibartarrak. **Toribio Etxebarria sarixak** banatu zittuen. Eta azken asteburua aurten 47 urte egin dittuan **Euskal Jaixa**k bete eban.



**ANTONIO SARASKETA**
**"Urkizu aldean babeslekuak egiten ibili nintzen gerran"**

**DATUA**
**%23 da industriak duen pisua herriko aktibidadeetan, eskualdeko (%40) txikiena**


Tantanez Tantan euskeraren alde


Euskal Jaiaren asteburu betea

EGOKOP S.L.L.
FOTOKOPIAK - LASER - KOLOREA
PLANOEN ERREPRODUKZIOA
ENKUADERNAZIOA - PLASTIFIKATUAK
FAX ZERBITZUA - CD-TIK INPRESIO DIGITALA Z/B - PEN-DRIVE-TIK INPRESIO DIGITALA Z/B
EGOKOP, S.L.L.
Bidebarrieta, 46 - behea 311 postakutxa 20600 EIBAR
Tel. eta Faxa: 943 20 86 12
egokopsll@euskalnet.net

943 20 37 15 Ibarkurutze, 5

altzariak eta koltxoiak
Karlos


Dultzaineroak Sanjuanetako pregoiaren aurretik


Esperientziaren Eskola aurrera



Kolon minbiziaren aurkako kanpaina

**Eskolako Agenda 21** programiari jarraittuta, ikasliak euren proposamenak udaletxeko plenoraiño eruan zittuen. **Foru Aldundiko ordezkarixak** bere programia presentatzera etorri jakuzen. **Ekintzaillien Eguna** ospatzeko ekitaldixa hartu eban Debegesak. Aurten 20 urte bete dittuan **Goruntz** abesbatzak, hori ospatzeko, Easo abesbatzarekin batera kontzertua eskindu eban. Eta kantuan emon eben eguna **Kaleetan Kantuz**-ekuen topaketan parte hartu eben abesbatzak. Ikasturtia agurtu aurretik egun berezixa ospatu eben Kezka dantza eskolako 130 ikaslek **Dantzari Egunian**. Eta sasoi honetan ohikua dan moduan, jaixak gero eta tarte haundixagua hartzen hasi ziran: **Sanjuanak**, presupuestua murriztuta be, 88 ekitaldi ekarri zeskuezen. **Urki auzokuak** be euren jaixak antolatu zittuen eta hillaren amaiera aldian **Sanpedruak** ospatu genduazen behealdian. **Kanpoko igerilekuak** udako sasoiari ekin zetsan.



**ARRATE ESPILLA**

**“Amama eta amarekin ikasi dut gantxiloa egiten”**

**DATUA**

**Eibartarren %24k 65 urtetik gora ditu, EAEn eta Gipuzkoan baino lau puntu gehiago**

DEBA BEHEKO ELKARTEA
ESKUALDEKO BATZORDE ERAGILEA
UGT Euskadi
Debabarrena Urola Kosta
Sindikatua zuen zerbitzura
Urte berri on!
ZORIONAK
“Denon Sindikatua”
Isasi, 2 - 1. -EIBAR-
☎ 943 82 07 82

943 20 61 43
bar aldatz
ALDATZ taberna
Martxa nahi baduzu... Zatoz!
Zure zain gaude
San Juan, 3

# EIBARKO KIROL SARIEN XVIII. edizioa

***Datorren astelehenean, abenduak 31,*** *dagoeneko ohitura denez, ...eta kitto! astekariak antolatzen duen Eibarko Kirol Sarien edizio berri batek bere zita izango du Eibarko kirol munduarekin. Hamazortzigarrena izango da.* ***Portaleko Areto Nagusian, eguerdiko 12.00etan*** *hasiko den ekitaldian, modalitate bakoitzean izendatutako kirolariek euren saria jasoko dute; modalitateei dagokienez, 26 sari banatuko dira eta, horiez gain, sustapen saria, euskarakoa eta ohiko sari berezia. Guztira, beraz, 29. Lerro hauetatik, eibartarroi ekitaldira joateko gonbitea egiteaz gain, parte hartu duten kirol talde guztiei eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen. Zorionak irabazleei! Eta baita gure herriko kirol taldeei ere, urte guztian egiten duten lanarengatik.*

**SARI BEREZIA**



**Jaime Barriuso**

Eibar Kirol Elkartea

**ARETO-FOBALLA**



**Alex Alonso**

Debabarren Areto-Foballa

**ARKU TIRAKETA**



**Jon Ander Mayoral**

Arkulariak

**ATLETISMOA**



**Ainhoa Azpiazu**

Eibarko Klub Deportiboa

**AUTOMOBILISMOA**



**Ruben Moro**

Escuderia Eibar

**ERRUGBIA**



**Oscar L. de Gereñu**

Eibar Rugbi Taldea

**ESKIA**



**Amaia Bueno**

Eibarko Klub Deportiboa

**ESKUBALOIA**



**Unai Ibaibarriaga**

Eibar Eskubaloia

**FITNESS**



**Iñaki Mateos**

Orbea Kiroldegia

**FOBALLA**



**Jon Errasti**

Eibar Kirol Elkartea

**GIMNASIA ERRITMIKOA**



**Jubenil taldea**

Ipurua Gimnasia Erritmikoa

**GOLFA**



**Maier Fernández**

Eibar Golf Pitch & Putt

**HERRI KIROLAK**



**Jose Antonio Arrillaga**

Eibarko Euskal Jokoak

# abenduak 31, astelehena, 12.00etan, Portalean

**HIRU TXIRLO**



**Euskadiko selekzioa**

Asola Berri

**IGERIKETA**



**Martin Aizpiri**

Urbat-Urkotronik

**JUDOA**



**Nekane Muguruza**

Judo Kalamua

**MENDIA**



**Jose Enrique González**

Eibarko Klub Deportiboa

**PILOTA**



**Iker Narbaiza**

Eibarko Klub Deportiboa

**SASKIBALOIA**



**Gaizka Hernández**

Ruibal Alquiler Vehículos

**SQUASH**



**Andoni Etxebarria**

Eibarko Klub Deportiboa

**TENISA**



**Iker Ezkerra**

Unbe Kirolgunea

**TIRO OLINPIKOA**



**Jose Miguel Solas**

Club Tiro Dinbi-Danba

**TRIATLOIA**



**Juanjo Romero**

Eibar Triatloi Taldea

**TXIRRINDULARITZA**



**Jokin Bergara**

Debabarrena-Kirolgi

**WATERPOLOA**



**Txomin Leturiaga**

Urbat-Urkotronik

**WU-SHU**



**Vicente Tercero**

Ttatt Gimnasioa

**XAKEA**



**Jose Antonio Garrido**

Klub Deportiboa

**SUSTAPENA**

**Somos Asesores**

Eskubaloia

**EUSKERA SARIA**

**Atletismo Taldea**

Eibarko Klub Deportiboa

Hillaren lehelenguan hil zan Deparkel Debabarrena Parkinson alkartia sortzeko bultzatzaille nagusiña izan zan **Jesus Astigarraga**, 75 urterekin. Sanfermiñetako txupinazua ekarri zeskuen **Oporrak Afariketan** pasau eben 500 umiak. Eta jaixekin jarraittuta, **Amañako jaixetan** aurten arreta berezixa eskindu zetsen Irati auzokidiari, umiak dakan gaixotasunari laguntzeko dirua batuta. Lambretta motorrekin batera, King Africa izan zan **San Kristobal** auzoko **jaixetako** protagonista nagusixa. **Plazatik Gaztetxera** txapelketako finala, barriz, Eibarko gaztetxian jokatu eben bazkarixan batutako 200 lagunen aurrian. Hillaren bigarren hamabostaldixan aillegau jakuzen **udako merkealdi berezixak**, neguan egindakuaren bidetik. Eta hillaren 17xan zabaldu eben Portalean **"Gerra eta Bakea. Zuzeneko begiradak"**, gerra-argazkilari garrantzitsuenen erretratuekin osatutako erakusketia.



La Salle ikastetxekoen ikasturte amaierako jaia



**ARRATE GARMENDIA**

**"Beti egongo da laguntasuna behar duen jendea"**

**DATUA**

**1.450 lagunekin topera bete ziren kanpoko igerilekuak eta itxi egin behar izan zituzten**



Udako Eibar Factoring azoka



Amañako jaietako animazioa

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• Koroak • Eskelak • Hilarriak • Agiriak

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA: ☎ 943 201095 Faxa: 943 202564

Tintalur

Kartutxo eta Toner Birziklaia eta Salmenta

Errebal, 12 - behea

Tel./Faxa: 943 531 809

tintalur@gmail.com www.tintalur.com


Espainiako Itzuliaren 4. etapa Arrate gainean amaitu zen



Romarate Olinpiadetan izan zen


42.000 lagun hartu zituzten igerilekuek

Udako astiak **hainbat bihar** egitteko aprobetxau dittue aurten be: potolonuetakuak **Amaña-Ardantza** bittartian **trenbidia** bikoizteko lehenagotik hasitta eguazenak izan ziran, aurrekontuarengaittik (14'9 millioi euro) eta iraupenarengaittik (15 hillebete). Abuztuan hasi ziran **Estaziño kalia** barriztatzeko biharrak. Kalia oiñezkuendako erosuagua bihurtzeko biharrak 211.097 euro kostau dabe eta iraun eben bittartian, 4 hillebetian, trafikuarendako moztuta egon zan kalia, bertako eta inguruko trafikuan aldaketak eraginda. **Milaflores**eko akzesuak hobetzeko biharrekin aurrera segidu eben abuztuan. Bestalde, eta urtero egitten daben moduan, Miguel de los Toyos **alkatia** oporretan izan zan bittartan **txandaka** ordezkatu eben Pedro Escribano, Mª Jose Telleria, Eneko Andueza eta Arcadio Benitez ziñegotzixak. Eta batek baiño gehixagok faltan botako eban udako zinia, aurten ez dalako emonaldirik eskindu.



**ZIRIAKO ORTIZ DE ZARATE**

**"Euskal herri denetan jardun izan dut aurkezle lanetan"**

**DATUA**

**20.400 eurokoa da eibartarron batezbesteko errenta, krisia hasi zenean baino ia 800 gutxiago**



